


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a / 493. zenbakia



**GESPAKO
KALE
GARBITZAILEAK
GREBAN**

IPINTZA: FUTBOL TXAPELKETA, MAIATZEAN HASITA/10 • GAZTETXEA: ASIER SERRANO GAUR GAUEAN/12



Jean Paul Gaultier kolonia
AMAIA
Barrenkalea 25



Atian konjunttoa
MARGA
San Pedro 20



My time konjunttoa
MIRARI
Martoko 34



Triumph bainujantziak
ORTZADAR
Ibargarai 8

Maiatzaren 5ean,
Zure
Amaren
Eguna
Ez ahaztu gero!



Jocavi konjunttoa
AGIRRE
Bidekurutzeta 18



Belcor lentzeria
ZUBIKUA
Barrenkalea 24



Lore sorta
NINIKA
Ramon Maria Lili 8

ATREBENTZIA EZPADA / Ligatzen ikasteko ikastarua dago zapatuan. Zuk ze teknika erabiltzen dozu?



IKER LARRAÑAGA
25 urte

Nik ez dot inungo teknika-rik erabiltzen ligatzeko. Batzuetan ligatzen dot, baiña inungo teknika-rik erabili bari. Bueno, naizen modukua izaten naiz, eta kitto!



ELI LASKURAIN
14 urte

Ni naizen modukua izaten naiz, eta aurrera, ea suertia dagon. Mutillei goitik behera begiratzen dotset, baiña teknika-rik ez dot erabiltzen. Batzuetan, igoal, hurbildu edo...



AMAIA RODRÍGUEZ
15 urte

Lehenengo, goitik behera begiratzen dotsat mutillari. Gero, Martini-ko gestua egiten jat, mingaiña etaraten jat eta begixa giñau. Horretxegaittik, zapatuko ikastarora jun egingo naiz.



GORKA FORJÁN
15 urte

Naizen modukua izaten saiatzen naiz, ahalik eta naturalena. Dantza egittia be gustatzen jat, eta sinpatikua izaten saiatzen naiz. Zapatuko ikastarora jungo naiz, badaezpada.



GAROA BERRUETA
14 urte


Nik ez dot ligatzeko teknika-rik erabiltzen eta ligau be ez dot egitten. Horretxegaittik, izena emon dot zapatuko ikastaruan, ia ligatzeko teknika-rik ikasten doten-edo.



OIER TOLA
16 urte

Ez dakit. Ba... begixetara begiratu, naturala izan. Eta horrekin batera, zeozer pentsautu izaten dot konbersaziñua emoteko. Zapatuko ikastarorako ez dot izenik emon.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ELOSU EDO ELOSÚA? Saihesbidean, Ondartza baserri pareko zubirako irteeraren ondoan, Elosurako bidez ohar tarazten duen seinalea dago. Oharra jarraituz gero, auzora helduko garela ia seguru, noranzkoa zuzena delako, jakina. Auzoaren izena, aldiz, ez zaigu zuzena iruditu. Ala Elosúa behar du izan, "u" hizkiaren gainean azentu-marka eta guzti? /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

Greban kale garbitzaileak

Astehenean, mugagabeko grebari ekin zioten Cespa enpresako kale garbitzaileak.

GAZTE GARA... / 13

Ligatzeko teknikak

Jardunek eta Udaleko Ongizate Sailak ligatzen ikasteko tailerrak antolatu dituzte gatzetxoendako.

KULTURA / 12

Asier Serrano gatzetxean

Eibarko idazle eta musikariak bakarkako lehen lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ASTEKO DATUA

3.000

LAGUN 65 URTETIK GORAKOAK 2005 URTEAN

LKS Consultores eta San Joxepetik egiten diharduten azterketaren arabera, 2005 urtean 65 urtetik gorako 3.000 lagun izango dira Bergaran, biztanleriaren %20 hain zuzen ere.

BESTE EKESANA

AHTren proiektuak Angozarko bailara txikitu egiten du. Hor badaude baserriak jarraitzeko ilusioarekin, baina lur jota daude, ez dakitelako zer gertatuko den. Informaziorik ez dute ematen, ez dago partaidetzarik eta baserrietan proiektu batzuk bertan behera lagata daude indefinizio horregatik. Lurra kentzeaz gain, beste arazo batzuk sortzen dute. Askotan esaten da "lurra hemendik kendu eta beste leku baten emango dizut", hori ez da erreala. Horrek baserriaren zatiketa dakar; ganadua ez dakit nora eraman beharra... Lur denak industria-ri eta urbanizazioari begira daude. Kontua da herritik bultzatu daitezkeela politikak lurra gatzeteei emateko, edo laguntza fiskalak emanez, herriko lurra horra bideratu.

MAITE ARISTEGI
'Batzen'/2002ko apirila

BERAIEK DINOE / Josune Iñarra



Re-balida

Hezkuntzaren gaia modan dagoela dirudi. Azkenaldi honetan, komunikabide gehienek zalaparta itzela sortu dute DBHko ikasleen porrota dela-eta. Kontu hau ez da berria, baina badirudi porrota zenbakietan islatuta ikusteak beldur handiagoa ematen duela.

Eta irakurketa horixe bera da niri beldurra ematen didana. Emaizta omen da kezkarria eta ez horra iristeko jarraitu den bidea. Ikasketa-prozesuaz, ibilbideaz inor gutxi arduratzen da, baina emaitzak ikustean...

Hezkuntzaz asko hitz egiten da, baina ez da horren inguruko benetako hausnarketarik egiten. Oraingoan ere, ditxosozko rebalida izan da kezka sortu eta hautsa harrotu duena. Gai honek izan duen oihartzunak jarri du berriz ere irakaskuntzaren mundua askoren ahotan. Baina rebalida bera al da arazoa? Azterketa horrekin konponduko dute zenbait

ikasleek aurreko urteetatik dakartzaten hutsuneak?

Europar rebalida egiten duten herrialdeek ei dauzkatela emaitzarik onenak sinestarazi nahi izan digute. Hori esan dutenek, ostera, ez dituzte Danimarka eta Holandako hezkuntza sistemak aztertu, adibidez. Ez da beharrezkoa. Zenbakiak diotenez porrota txikia da, eta kitto! Askoz ere eraginkorragoa izango da kanpokoa kopiatzea (ona zein txarra izan), bertakoa hobetzea baino.

Herrialde bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta ezaugarri horien neurritan egindako hezkuntza sistema lortu behar dugu. Egia da oraingo sistemak baduela zenbait akats eta hutsune. Egia da irakasleen egonkortasun ezak gauzak asko zailtzen dituela eta ikasle, irakasle zein gurasoen arteko elkarlanak estuagoa izan beharko lukeela.

Hori guztia jakinda, egin dezagun hitz.

"Emaizta ei da kezkarria eta ez horra iristeko bidea. Ikasketa prozesuaz inor gutxi arduratzen da"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 26**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 27**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 28**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 29**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 30**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 1**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 2**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 19 63

TELEFONJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK
1949an jaioakoen bazkaria apirilaren 27an (zapatua) Tartufo jatetxean. Autobus zerbitzua egongo da. Izenematea: 943 76 35 51.

1943KO KINTOAK
1943ko kintoen -1922an jaioakoen- afaria apirilaren 27an (zapatua) Sirimiri jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza Santa Marinan. Txartelak Azkarate estankoen.

1963AN JAIOTAKOAK
1963an jaioakoen bazkaria maiatzaren 4an Torrekua jatetxean. Egunean bertan, 13:00etan, San Martin plazan elkartuko dira, eta bazkaria 14:45ean izango dute. Izena ematea (6 euro aurretik) Ariznoa tabernan hilaren 28a baino lehen.

BATASUNAREN BATZARRA
Egunean, maiatzak 2, Batasunaren batzarra izango da Miguel Altuna institutuan, 19:00etan.

MENDI IRTEERA
Gorla Alpinorekin eta Pol-Pol Mendizale Taldearekin mendi irteera domekan, hilak 28. Obrañanora, Union mendatera eta Friasera joango dira. Irteera 08:00etan izango da, frontoitik. Argibideak Pol-Polen: 943 76 48 51.

JARDUNENAGENDA

GAZTETXOEN ARTEKO OLINPIADAK
Maiatzaren 4tik ekainaren 15era, 4., 5. eta 6. mailan ari diren gaztetxoendako olinpiadak antolatuta ditu Jardunek. Zapatu arratsaldeetan izango dira jokoak: txandakako lasterketak, boloa, toka, igela, eta beste hainbat. Izenematea eta argibideak: 943 76 08 19.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Elorregiko pilotalekua inauguratu zuten

Elorregiko jaien egitarauaren barruan, 1992ko apirilaren 24an inauguratu zuten hango pilotalekua. Jende ugari batu zen, Udaleko hainbat zinegotzi eta Felipe Altuna Elorregiko auzo-alkatea tartean. Dantzariak eta bertso-lariak saioa egin zuten, eta gero beterranoen partiduak izan ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perpeziñua"



Zerbait egiteko erraztasune, trebetasuna. -Eskulanetarako perpeziño aundixa dauka Julenek.

GORKA ORTEGA

ASTEKOFILMAK

'GOSFORD PARK'

ZUZENDARIA: ROBERT ALTMAN. AKTOREAK: MICHAEL GAMBON, KRISTIN SCOTT THOMAS, MAGGIE SMITH.

HARIA. Aurtengo Oscarretan hainbat izendapen jaso dituen filma. Gosford Park etxe handian hilketa bat gertatuko da, eta han batutako guztiek zerbait izango dute ezkutatzeko.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●



'HABLE CON ELLA'

ZUZENDARIA: PEDRO ALMODOVAR. AKTOREAK: JAVIER CAMARA, LEONOR WATLING, DARIO GRANDINETI.

HARIA. Pedro Almodóvarren azken filmean patuak lotutako bi gizonen gorabeherak kontatzen dira, maite dituzten bi emakumeak erietxe baten ospitaleratu daude-eta. Bien artean oso harreman berezia sortuko da.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Martitzenean, 22:30ean, eta eguaztenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●

BERGARA MARGOAK

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19
BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behea. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETxea, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Kruz Gallastegi 2, behea. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

HIRIGINTZA/ Barrenkaleako bizilagunei lur azpiko aparkalekuan autoarendako plaza erosteko aukera emango die Udalak

Irala kalea urbanizatu eta azpian aparkalekuak egiteko proiektua, esleitura

MONIKA BELASTEGI

Baldintzak lehiaketara atera ondoren, Iñaki Berasategi arkitektoari esleitu dio Udalak Irala kalea urbanizatu eta azpian aparkalekuak egiteko proiektua idaztea. Urbanizazio lanek Seminarioan hasi eta Irizar etxeko parkerainoko gunea hartuko dute.

Iñaki Berasategi Bergarako arkitektoari adjudikatu dio Udalak Domingo Irala kalea urbanizatu eta azpian aparkalekuak egiteko proiektua idaztea. Urrian, osoko bilkurak baldintzak onartu eta lehiaketara atera ondoren, hiru aditu aurkeztu ziren deialdira. Epaimahaiaren iritziz, Berasategiren ideia da Udalaren asmetara gehien hurbiltzen dena.

Proiektuak hiru xede izango ditu: batetik, Irala kalea urbanizatzea, Seminariotik hasi eta Irizar jauregia amaitzen den tokiraino. Bestetik, kale azpian aparkalekuak eraikitzea, eta hirugarrenik, Irala kalera ematen duten Barrenkaleako etxeen osteko fatxadak txukuntzea.

Urbanizazio lanei dagokienaz, Barrenkaleako etxeen osteko lorategi zein terrazak bota egingo dituzte (gaur egun Zabala, Sagarpeta eta Gasparrekoa baino ez dira geratzen). Hori horrela, Irala kalea den zabal guztian txukunduko dute. Horrez gain, Iralatik San Martin plazarako sarrera horren maldatsua ez izateko Iralatik bertatik hasiko da altuera hartzen, eta eskailerak ere izango ditu. Horrez gain, espaloirik ez du izango Domingo Iralak, nahiz eta errepedeak irtenuneak izango dituen bi alboetara oinezkoen gunetik bereizteko. Jose Antonio Etxeberria Hirigintza



Berasategik Udaleko lehiaketara aurkeztutako zirriborroak Irala kalearen itxura berria erakusten du.

IÑAKI BERASATEGI

Lehiaketan hiru arkitekto aurkeztu, eta Iñaki Berasategiren ideia aukeratu dute

Irizar jauregiko lorategia inguratzen duen murrutia botako dute, Irala kalean integrazteko

Barrenkaleakoei aparkalekuan plaza erosteko aukera eskaintzea aztertzen ari da Udala

zinegotziaren esanetan, urbanizazio lanak egin ondoren, aste-buruetan soilik oinezkoendako gunea izateko aukera aztertzen ari dira.

Urbanizazio lan horien barruan, Irizar jauregiko lorategia ere aurrez ikusita dago. Lorategiaren zati bat dagoeneta utziko dute, eta Irala kalera ematen duen lorategi zatia, aldiz, berregingo dute. Horrez gainera, lorategi zati hori inguratzen duen murrutia ere bota egingo dute, lorategia Irala kalearekin integrazteko.

80 APARKALEKU INGURU

Lur azpian eraikiko duten aparkalekuari dagokionez, laurogei plaza inguru izango ditu eta solairu bakarrekoa izango da. Sarre-ra Telefonica paretik izango du, eta irteera, berriz, Irizar kalean.

Victoriano Gallastegi alkateak GOITBko Alkatearekin berbetan saioan aurreratu zuenez, aparkaleku horietako batzuk Barrenkaleako bizilagunei –eta baliteke alde zaharreko beste kale batzuetara zabaltzea eskaintza– saltzeko aukera aztertzen ari dira; izan ere, alde zaharrean garajerik ezin da egin. Gallastegi alkateak gehitu zuenez, lehenik eta behin aparkaleku plaza erosteko interesa zenbatek duten aztertu beharko dute eta horren arabera zenbat salduko diren erabaki.

Udalak, momentuz, proiektuaren idazketa esleitu baino ez du egin eta lanak noiz egingo dituzten aurreraterik ez dago. Etxeberria zinegotziaren esanetan, ezta proiektua eskutan izan arte lanen gaineko zehaztapen gehiagorik eman ere. Gainera, litekeena da orain arte esandakoek hainbat aldaketa jasateko proiektuan.

Cespako kale garbitzaileak, greban

MONIKA BELASTEGI

Aurreko astean iragarri zuten bezala, Cespa enpresak hamar kale garbitzaileek mugagabeko grebari ekin zitoten astelehenean, lan-hitzarmena dela eta.

Bi puntuk eragin dute greba: soldatak eta lan-egutegiak. Soldadari dagokionez, bi urterako hitzarmena eskatzen dute langileek: 2002an, %4,7ko igoera, eta 2003an, KPI gehi bi puntu. Enpresak lau urterako hitzarmena eskaini die eta 2,61eko igoera globala, Izaro Aperribai langileen ordezkariaren esanetan.

Lan-egutegia da, baina, desadostasun nagusia eragin duena. Batetik, jaiegun berezietarako (urtean zazpi) derrigorrezko txandak ezarri nahi ditu enpresak, eta langileek txanda boluntarioekin jarraitu nahi dute. Bestetik, zapatuak libratzen hastea ere nahi dute: aurten (abendura arte), 10 zapatu lan egitea, 2003an, 18, eta 2004an, guztiak libratzea. Enpresak 2005. urtera arteko eskaintza egin die, urte horretan oraindik 12 zapatu bakarrrik libratuta.

Greba hasi zutenetik, Udaleko lau kale garbitzaile arduratzen dira herriko kaleak garbitzeaz.



Astelehenean, grebaren lehenengo egunean, ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten plazan Cespako langileek.

MONIKA BELASTEGI

ELKARRIZKETA

NEKANE LARRAÑAGA/AFAGI ELKARTEKO GIZARTE LAGUNTZAILEA

“Dementziadun gaixoei segurtasuna transmititzea oso garrantzitsua da”

MONIKA BELASTEGI

Astean barrena, Afagi elkarteko kideek demen-
tziaren gaineko jardunaldiak egin dituzte kultura etxean. Gaixotasunaren berri eman eta familian horrelako gaixoa dutenek esperientziak trukatzeko aukera izan dute.

Zein da jardunaldien helburua?

Herritarrei, orokorrean, eta, bereziki, familian dementziadun gaixoren bat dutenei honakoan laguntzea: dementzia zer den ulertzen, dementzia bera ulertzen eta antolatzen laguntzea. Azken baten, gaur egun sendabiderik ez duen gaitza da, eta gaitzarekin ahalik eta ondoen bizi izaten ikasi behar dugu.

Dementzia jakin baten inguruan ariko zarete ala gaixotasuna orokorrean hartuta?

Mota asko dago. Orokorrera alzheimerra da, baina baskularrak ere izan daitezke, parkinsonetik eratorritakoak... Jardunaldietan dementzia orokorrean landuko dugu, komunean sintoma asko dituzte-eta.

Familian halako kasuren bat izan dezakegula susmatzen badugu, zer egin dezakegu?

Susmo txikiena dugunean, lehenik eta behin, sendagilearengana jo behar dugu diagnostikoa egiteko; ahalik eta azkarren eta zehatzen. Horren ondoren, gaixotasunaren gaineko informazioa eskuratu behar dugu: zein fase dituen... Azkenik, antolatu egin behar gara. Horretarako jakin behar da zein behar ditugun, azken baten gaixo bakoitza berezia delako, baina baita familia bakoitza ere. Horregatik ezinbestekoa da jakitea zein behar ditugun baita zein baliabide ere gaixoa zaintzeko, bai familian bertan baita kanpoan ere, elkarrekin, eta abar.

Horren guztiaren gainean berba egingo dugu jardunaldietan.



MONIKA BELASTEGI

“Oraindik ere buruarekin zerikusia duten gaixotasun guztiak tabu dira”

Gai tabua izaten jarraitzen du dementziak?

Nahikotxo. Buruarekin lotutako ia guztia da tabu. Gaixotasun organikoa da, ez da pentsatu behar gaixoak erotu egin direnik. Kontua da neuronek behar bezala funtzionatzeari utzi diotela.

“Familiarentzat zaila da, baina gaitzarekin ahalik eta ondoen bizitzen ikasi behar dugu”

Familiarentzat garrantzitsua da gaixoa tratatzen jakitea.

Prozesu zaila da. Gaixotasuna onartu behar da, gero ulertu... Hala ere, gaixoei segurtasuna transmititzea oso garrantzitsua da, eta horretarako lehenik eta behin norberak izan behar du.

LABUR

Gobernuz kanpoko erakundeendako 58.473 euro bideratu ditu aurten Bergarako Udalak

Gobernu batzordeak GKEei zuzendutako dirulaguntzak emateko baldintzak kaleratu ditu. 58.473 euro izendatu dituzte laguntza horiendako eta bi eratan banatuko dituzte: %10 herrian egingo diren sentsibilizazio arloko ekintzetarako eta %90 garapen bidean diren herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoko garatu eta hobetzeko ekintzetarako.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko legez eraturako GKE izan beharra dago eta egoitza Gipuzkoan izan behar da. Eskariak Udaleko Erregistro Orokorrean egin behar dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara, maiatzaren 12a baino lehen.

Gaztetxoen arteko II. Olinpiadak antolatu ditu Jardun elkarteak maiatzan eta ekainean

Laugarren, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutikoei zuzenduta daude. Maiatzaren 4tik ekainaren 15era arte izango dira, zapatu arratsaldeetan, eta besteak beste, hockeyan, errelebutan eta sukaldaritzan lehiatu beharko dira. Taldeek, gutxienez, zortzi lagunekoak izan beharko dute, eta gehienez, 10ekoak. Taldeak izena izan beharko du eta koadrilaren blusa edo kolore bereko kamiseta. Izena Jardunen bulegoan (kultura etxea) edo 943 76 36 61 telefonoan eman beharko da apirilaren 30a baino lehen.

Zezen zaleak taldeak irteera antolatu du Manolo Relancio Izquierdoren ganadutegira

Irteera maiatzaren 4an izango da, Gallur-era (Zaragoza). Autobusa frontoitik irtengo da, 08:00etan. 11:00etan, hamaiketakoak egingo dute, eta 12:00etan, ganadutegia bisitatuko dute. 13:30ean, zezen txoak askatuko dituzte, eta bazkariaren ondoren, kapea egongo da. Izena Ganbara tabernan eman beharko da maiatzaren 1a baino lehen, eta prezioa 40 euro izango da.

Bestalde, Pazkoetako zezenketen aurkezpena maiatzaren 5ean izango da, 13:00etan, Avenida kafetegian.

Elorregi auzoan Prudentzio Deunaren jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte, Elorregin Prudentzio Deunaren jaiak ospatuko dituzte. Gaur, 18:00etan, makala jasoko dute, eta zapatuan, 14:00etan, auzo bazkaria egingo dute Alkartasunan. Peñagarikano eta Jon maia bertsolariak ere izango dira, baita trikitilariak ere. Gauez, 22:00etan, erromeria egongo da soinu jotzaileekin. Domekan, jaietako amaiera emateko, 10:30ean, meza nagusia egongo da Alai Taldeak abestuta, eta jarraian, pilota jokoa eta Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia.

Musa, txirrindulari lasterketa eta bandaren emanaldia Labegaraietako jaien ardatz


Zapatuan eta martitzenean, jaiak ospatuko dituzte Labegaraietan. Zapatuan, 16:00etan, emango diete hasiera jaietako txafuego jaurtiketarekin, eta gero, XXVI. Mus Txapleketa izango da; izenematea ordu erdi lehenago itxiko da Agirrebeña jatetxean. 21:30ean, IX. Auzo Afaria egingo dute Zabal jatetxean, eta 03:00etan, kulero eta galtzontzilo lasterketa. Eguaztenean, maiatzaren lehen, 10:30ean, marrazki lehiaketa egongo da; 11:00etan, meza nagusia, eta gero, Udal Musika Bandaren emanaldia. Jaiak amaitzeko, 15:00etan, umeendako jolasak, eta 16:30ean, 40. Txirrindulari Lasterketa.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14 BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

**LABEGARAIETAKO
JAI ZORIONTSUAK
BEZERO
ETA HERRITAR
GUZTIOI!**



LIBURUAREN EGUNA MARTITZENEAN

Joan den martitzenean, hilaren 23an, Errotalde jauregian dagoen Udal Liburutegia itxi egin zuten. Izan ere, Liburuaren Eguna zen. Baina ez pentsa liburuzainek jai hartu zutenik. Liburutegiko liburu, bideo, aldizkari eta gauza guztiak hartu eta udaletxeko arkupetara eraman zituzten egun hartan. Horrela, eskaintzen duten zerbitzuak eta produktuak ezagutzera emateko aprobetxatu zuten eguna. Aranzadi Ikastolakoek, berriz, Liburuaren Eguna aitzakia hartuta, Irakurketaren Astea antolatu zuten: umeez egindako ipuinen trukaketak, ipuin kontaketak, Literatura Lehiaketako ipuin sarituen erakusketa, umeez egindako liburu erraldoiaren erakusketa... Hainbat ekitaldi izan zituzten aste osoan. Irakurzaletasuna bultzatzeko egindako jarduera horietan guztietan, sei eta hamabi urte bitarteko 300 umek baino gehiagok parte hartu zuten.



IKASLEAK 'BERRIGARA'N BISITARI

San Martin Ikastetxeko hirugarren mailako ikasleen bisita izan genuen joan den asteko egubakoitzean. 35 bat ume etorri ziren BERRIGARAko egoitzara. Izan ere, komunikabideen gaineko gaiak lantzen ari dira ikasle horiek, eta aldizkaria zelan egiten dugun ikusi ahal izan zuten. Adi-adi entzun zituzten zuzendariaren eta maketatzaileren azalpenak, eta zenbait galdera ere egin zizkiguten.



ANTZERKI IKASTAROA

Zapatu goizero izaten dituzte antzerki saioak Zabalotegi aretoan. Virago antzerki taldeko Pedro Muxika dute irakasle, eta era guztietako ariketak egiten dituzte, antzezten ikasteko. Denetara, 32 lagun ari dira, ume, gazte eta heldu.

telkar
Bitxitegia

Deskontua
%20

Ibargarai 2
943 76 27 11

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BERGARARRAK MUNDUAN

UXUE OTAOLA

30 URTE / DANTZARIA ETA IRAKASLEA / BARTZELONA

“Asko gustatzen zait hiria: gauza asko daude egiteko, anonimatua ematen du...”

AINZANE IRIZAR

Hamabi urte darama Uxuek Bartzelonan bizi izaten. Hemezortzi urte zeuzkala joan zen dantza garai-kideko ikasketak egitera, eta hantxe bizi da ordutik hona.

Bergaran hasi zen dantzak ikasten: “egia esan, nahiko berandu hasi nintzen dantza ikasten, baina gustatu egin zitzaidan eta horretan jarraitzen dut gaur egun”, azaldu digu Uxuek. Gaur egun Andrés Wansman dantza konpainian lanean dihardu. Dantzari izateaz gain, dantza irakaslea ere bada; akademia baten eta hainbat gizarte etxetan ematen ditu dantza eskolak.

Oso gustura dago Bartzelonan bizi izaten. Ondo moldatu da hango bizimodura; dena dela, hasierako urtea ez ei zen batere gozoa izan: “ez dut sekula aparteko arazorik izan, baina lehenengo urtea nahiko gogorra izan zen”, diosku. Garai hartan

Bartzelonan ez zegoen ia euskaldunik, ez zuen inor ezagutzen, dena ezberdina zen..., baina berehala moldatu zen. Hizkuntzarekin, baina, ez zuen inolako arazorik izan; Uxuek azaldu digunez, “berehala hasten zara katalana ulertzen eta hitz egiten ere ikasi dut, oso


“Ez dut sekula aparteko arazorik izan, baina lehen urtea nahiko gogorra izan zen”

ondo ez, baina hitz egiten dut katalanez”.

Gaur egun euskaldun asko ei dago Bartzelonan bizi izaten: “duela bi urte, esaterako, kale berdinean hiru pisutan geunden bergararrak”, gogoratzen du. Orain lanean ari den dantza konpainian ere hainbat euskaldun ari dira.

Bergarako paisaiaren edota lasaitasunaren hutsunea nabaritzen ei du tarteka, “baina horrelakoetan, ahal bezain pronto etxera joaten naiz eta kito”, azaldu digu.

Oso gustuko du hirian bizi izatea Uxuek: “hirian gauza gehiago daude egiteko, anonimatua...; baina, noizean behin, agobiatu ere egiten du hiriak, eta horrelakoetan Bergarara joaten naiz”.



MINGAINARITIRAKA



Mila Etxaniz

XUXU DENDAKUA

lazko urrian zabaldu zeban dendia Milak. Aurretik, algodoneran ibilli zan lanian, orain dala lau bat urtera arte. Gero, Donostian be euki zeban denda bat Milak.

Zergatik Xuxu?

Oihane izeneko loiba bat daukat; esaten zotsen oihaneko xuxua dala *el susurro de la selva*, eta hortik etara giñuan.

Zelako erropak saltzen ditzuzue?

Danetik: narruzkuak, bakeruak, kamisetak, jertsiaak...

Erropa denda bat eukitta, modia jarraituko dozu, ezta?

Bai; dana dala, norbera eroso sentitzia inportantia da, hau da, gustora sentitzia janzten dan erropiak. Modan dagolako ez da edozer gauza jantziko, ezta?

Egin dozun azkenengo oparixa?

Orkidea bat.

Eta zeuk jaso dozuna?

Liburu bat.

Irakurzalia zara, orduan?

Bai, asko gustatzen jat irakurtzia.

Gustoko liburu bat?

Bajo el sol de Kenya.

Dendia ixten dozunian, zer egittia gustatzen jatzu?

Bueno, gauza bat da zer egittia gustatzen jaten eta beste bat zertarako denporia daukadan; normalian, dendia itxi eta lagunekin zeozer hartzera juten naiz.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Oso irekixa naiz; danerako jentiakin harremanak eukitzia gustatzen jat.

Ze ez zontsake barkatuko lagun batei?

Biharra daukadanian ez laguntzia; dana dala, uste dot denporiak gauza asko barkatzen diela.

Bukatzeo, amets bat?

Kartzelan inor ez egotia. Baitta etxe bat eukitzia be, beheko suakin eta ortu txiki baten magnolio bat.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Isaac Lazkano

MONTBLANC / 1994ko uztaila

Gu beti izan gara mendizaleak. Koadrilako lagun batek eta bere lankide batzuk Montblanc-era joatea erabaki zuten, eta niri ere eurekin joatea proposatu zidaten. Horrelaxe, lau lagun animatu ginen.

Bidaia hasi aurretik hasi zen dagoeneko gure abentura. Furgoneta bat alokatu nahi genuen; dena lotuta geneukan, eta aurreko egunean, furgonetaren bila joan ginenean, furgoneta horrekin Estatutik ezin ginela irten esan ziguten. Azkenean, kostata, baina automobil bat alokatzea lortu genuen.

Bi egunean egin genuen Chamonix-erainoko bidaia. Iritsi bezain pronto, informazio bulegora joan eta eguraldiaren berri galdetu genuen. Izugarria da eguraldiaren zelako aurreikuspen zehatza egiteri duten han; ze ordutan garbituko zuen zerua esan ziguten, eta bi egunetan eguraldi ona izango genuela. Eta asmatu zuten, gainera.

Horrela, hurrengo goizean Montblanc-eko aterperako bidea hartu genuen. Teleferikoan eta kremailera-treanean nahiko gora igo ginen, eta handik gora oinez abiatu ginen. Oso gogorra egin zitzaidan aterperako bide hori; batez ere, bizkarrean eraman behar izaten den pisuagatik egiten da gogorra. Bederatzi bat orduko bidea da aterperainokoa, eta oso bide monotonoa da, gainera. 3.800 metroko altueran dago aterpea, eta altuera horretan gorputzak aldaketak igartzen ditu. Joan ginenetako bat ez zen ondo sentitzen, burukomina zeukan eta ez zen gurekin etorri. Hiru lagun abiatu ginen, beraz. Ni ere, erdibidean, gutxi gorabehera, gaizki sentitu nintzen eta aterpera itzuli beharra izan nuen. Pena horrekin geratu nintzen; ia egunen baten Montblanc-era iristen naizen.



“Oso gogorra egin zitzaidan Montblanc-eko aterperako bidea”

“Erdibidean gaizki sentitu, eta atzera itzuli beharra izan nuen”

AINZANE IRIZAR



Isaac, Montblanc-eko aterperako bidean.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12
BERGARA
943 76 03 57

**IBARGYREN
PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

FUTBOLA

Maiatzean hasiko da jokatzeko Ipintzako Futbol Txapelketako aurtengo aldia

Adin mugarik gabeko txapelketa eta beteranoena bereiztuko dituzte, eta baita emakumezkoetan senior, kadete eta alebin mailak ere

EDU MENDIBIL

Zabalik dago dagoeneko Ipintzako Futbol Txapelketan izena emateko epea. Taldeek maiatzaren 10erako osatu beharko dituzte taldeak, eta maiatzaren 23tik aurrera kategoria askotariko partiduak izango dira Ipintzan.

Adin mugarik gabeko txapelketa 16 urtetik gorako jokalariaendako da. Sorraluzen, Elgetan, Antzuolan edo Bergaran jaio edo bizi direnek parte hartu ahal izango dute eta talde bakoitzak, gehienez, federatutako lau jokalaria izan ditzake, nahiz eta zelaian hiru bakarrik egon ahal izango diren une berean. Taldeak 14-21 jokalaria bitartekoak izango dira eta jokalaria bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko da. Txapelketa maiatzaren 27an hasiko da eta parte hartuko duten taldeekin batzarra izango da maiatzaren 16an, Ipintzan, 19:30ean.

Nagusien Futbol Zazpi Txapelketan 30 urtetik gorakoak ari-

tuko dira eta ez dituzte 10 talde baino gehiago onartuko. Futbol zazpiko partiduak eguenetan jokatuko dituzte, Ipintza futbol zelaian, zabaleran. Gehienez, 13 jokalaria izango dituzte taldeek, eta bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko dituzte. Maiatzaren 15ean taldeetako ordezkarien bilera izango da, 20:00etan, Ipintzan.

EMAKUMEZKOETAN HIRU MAILA

Bestalde, emakumezkoetan senior, kadete eta alebin mailak bereiztuko dituzte. Senior mailan 1986ko abenduaren 31 baino lehen jaiotako neskek jokatuko ahal izango dute eta partiduak ekainean eta uztailean jokatuko dira. Talde asko egonez gero, partidu batzuk aste bukaeran jokatuko dira. Zazpi jokalaria izango dira zelaian talde bakoitzeko, eta taldeak 10-13 jokalaria bitartekoak izan beharko dira. Senior eta kadete mailako taldeen batzarra maiatzaren 15ean izango da, Ipintzan hori ere, 20:00etan.



Adin mugarik gabeko txapelketako partiduak izango dira zelaian osoan jokatuko diren bakarrak.

Kadete mailan 1987-89 bitartean jaiotako nesken taldeak izango dira lehen eta alebin mailan, azkenik, 1990 edo 1991n jaiotako neskek hartuko dute parte. Alebin taldeen batzarra

maiatzaren 15ean izango da, 19:30ean.

Nesken txapelketak maiatzaren 24an hasiko dira. Alebin mailako jokalariek hiru euro ordaindu beharko dituzte eta senior eta

kadete mailako taldeek, berriz, sei euro jokalaria bakoitzeko. Izena emateko orduan, jokalarien izen-abizenak, taldeko elastikoaren kolorea eta ordezkariaren telefono zenbakia zehaztu beharko dira.

Senior eskubaloiak Deustu Loiola taldea hartuko du zapatuan

E.M.

Zapatuan Sestaon 44-25 galdu eta gero, igoera ligaxkako bigarren itzuliari ekingo dio senior eskubaloia taldeak. Zapatuan, Deustu Loiolaren aurka jokatuko dute bergararrak, kiroldegian, 17:45ean.

Lehen itzuleran bi partidu galdu dituzte mahoneroek, biak Bizkaian, hain justu, Deustu Loiola biharko aurkariaren aurka eta joan den zapatuan Sestaoren aurka. Edu Orgaz bergararren entrenatzailearen esanetan, "oso partidu eskasa egin genuen Sestaon, eta sekulako jipioa eman ziguten. Ez da oso normala igoera fasean 19 goleko aldearekin galtzea partidu bat. Espero dugu Deustu Loiolaren aurka berritoki ere gure ibilbidea zuzentzea". Sailkapenari dagokionez, lehen postuan Sestao eta Egialde daude, zazpi punturekin biak, eta jarraian



JULEN IRIONDO

Garikoitz Arregi jaurtiketa bat egiten etxeko aurreko partiduan.

Deustu Loiola eta Bergara, seina punturekin. Oraingo aste bukaerako jardunaldian, Sestaok eta Egialdek elkarren aurka jokatuko dute. Orgazen ustez, "etxeko partiduak eta kanpokoren bat irabazita, igoera lor dezakegu".

KADETEAK ETA GAZTEAK, ETXEAN

Aste bukaeran, beste bi partidu jokatuko dira kiroldegian: kadete taldeak Tolosaren aurka jokatuko du, zapatuan, 16:00etan, eta gazteek Aloña Mendi izango dute bisitari, domekan, 10:15ean.

FOTOKIROLA



Shotokan taldekoak Euskadiko Txapelketan

Markel Larrañaga karateka 3. izan zen Euskadiko Txapelketan, gazte mailan, 65 kilotik beherakoen artean. Argazkian, Euskadiko Txapelketan izandako bergararrak: Raquel Blanco, Unai Zabarte, Markel Larrañaga eta Kepa Odriozola. /E.M.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

PILOTA

Bergarak Ataunen kontra jokatu- du Herri Arteko Txapelketan

Joaneko partidua zapatuan jokatu dira, Ataunen, 18:30ean

EDU MENDIBIL

Herri Arteko Txapelketako lehenbiziko kanporaketan Bergarako pilotariek Ataungo taldearen kontra jokatu dute. Joaneko partidua bihar, zapatua, jokatu dira, Ataunen, eta itzulerakoak datorren egubakoitzean, maiatzaren 3an, Bergarako pilotalekuan.

Herri Arteko Pilota Txapelketa joan den astean aurkeztu zuten Donostian. Aurtengoan, 25 herri izango dira lehian. Bergarak Ataunen kontra jokatu du lehengo kanporaketa, eta irabazten badu, Zarautzen aurka jokatu luke hurrengo.

Kadete mailan, Mikel Salegi, Oihan Aranberri, Jon Larrañaga, Ibai Altuna eta Urdin Alberdi ditugu Bergarako ordezkariak; gazte mailan, berriz, Beñat Iñarra, Asier Larrañaga eta Ander Gabilondoren artean erabakiko da bikotea; eta azkenik, seniorretan, Edu Samaniego, Julen Aranburu, Ander Muguruza, Joseba Herran, Iker Zabaleta, Igor Apraiz eta Igor Gutiérrez ari dira. Seniorretan, Muguruzak eta Gutiérrezek osatuko dute bikotea, ziurrenik.



Argazkian, Debarroko Txapelketan aritu ziren bikote bergararrak.

GUTIÉRREZ AUERRERA BERGARA HIRIAN
Igor Gutiérrez Bergara Hiria pilota txapelketako finalerdietarako sailkatu da. Hark eta Eguskizak 22-7 irabazi zioten martitzenean Aranzeta-Casado bikoteari. Uste baino errazago eskuratu zuten garaipena.

Amateur mailako herriko beste ordezkariak, Ander Muguruzak, maiatzaren 7an izango du partidua. Argoterekin bikotea

osatuta, Azpiroz eta Iriarte izango dituzte aurkari finalerdietan sartzeko.

Promes mailan, berriz, Iker Azagirre bergararrak eta Errarte eskoriatzarrak Lagos-Arraztoa bikotearen aurka jokatu dute martitzenean, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Amateurren mailan, Ubera-Laskurain eta Amarika-Bengoetxea bikoteak izango dira aurrez aurre.

Bergara-Lagun Onak partidua zapatuan Agorrosinen

E.M.

Azken jardunaldietako emaitza onei eutsi nahirik, Bergarako Lagun Onak izango du bisitari zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Partidua klubaren laguntzarako egun erdi izendatu du taldeko zuzendaritzak.

Bergarak 1-2 irabazi zion Aretxabaletari azken jardunaldian, Ibarrran. Juanina Garaien taldeak oso partidua serioa egin zuen eta aretxabaletarrek markagailuan aurre hartu arren, mahoneroek garrantzi handiko garaipena eskuratu zuten. Inigo Castlosek penalti jaurtiketa bati

esker egin zuen bergararren lehen gola eta Oskar Maiztegi sartu zuen 1-2koa, korner jaurtiketa bat buruz errematatuta.

Domekako garaipenaren ostean, Bergara sailkapeneko 5. tokian dago, 55 punturekin. Bere aurretik Tolosa liderra (64 puntu), Pasajes (63) eta Lagun Onak eta Elgoibar dira (biak ere 61 punturekin). Gauzak horrela, eta bost jardunaldiren faltan, Bergarak ia ezinezkoa du igoera lortzea, baina bihar garaipena lortzen badu, aurreko taldeekin aldea murriztu dezake. Joan den denboraldian, Lagun Onak eta Bergara 3. mailan ibili ziren, eta bi taldeak sasoi betean dira liga amaieran.



JULEN IRIONDO

Bergarak Beti Onaren aurka Agorrosinen jokatu du partiduko irudi bat.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Bayer-Kanpazar	3-6
Bar Ugarte-Canalejas	5-4
Aterpe-A Ze Flaxa	2-17
Artusamak-Argandolas	9-3

PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

11:30:	Canalejas-Kanpazar
12:30:	Errotagain-Bar Ugarte
16:00:	Artusamak-Argandolas

ARGI IBILI!

BAR UGARTE ETA ARTUSAMAK IZANGO DIRA LIGAKO FINALEAN

Bar Ugarte eta Artusamak taldeen artean erabakiko da aurtengo ligako txapelduna. Bar Ugartek 5-4 irabazi zion Canalejas taldeari eta Artusamak erraz nagusitu zitzaion Argandolas-i, 9-3. Bestalde, Kopa txapelketan A Ze Flaxa taldea dugu Kopa txapelketan finalerdietara iritsi den lehena. Aste bukaeran, Kopako hiru partiduko jokatu dira.

TXIRRINDULARITZA

Kadeteen lasterketa eguaztenean labegaraietan

Eguaztenean, maiatzaren lehen egunetan, kadeteen zuzendutako 40. Aceralia Sari Nagusia jokatu da Labegaraietan. Txirrindulariek 64 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Irteera 16:30ean izango da eta Zabala pareko helmugara 18:00ak aldera iritsiko direla espero dute. Partaideen artean, Unai Arantzabal, Ibai Zornotza eta Gurutz Larrea Lokatza taldeko txirrindulariak izango ditugu.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Lagun Onak
Preferente maila. Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Mariño
Ohore. mailako gazteak. Domeka. 11:00. Agorrosin.

ESKUBALOIA

Bergara-Tolosa
Kadete mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.
Bergara-Deustu Loiola
Senior mutilak. Zapatua. 17:45. Kiroldegia.
Bergara-Aloña Mendi
Gazte mutilak. Domeka. 10:15. Kiroldegia.

PILOTA

Bergara Hiria
Azagirre-Errarte/Lagos-Arraztoa (Promesak)
Ubera-Laskurain/Amarika-Bengoetxea (Amateurrak)
Martitzena. 19:30.
Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Aretxabaleta 1 Bergara 2 (Preferente maila)
Bergara 1 A. Ondarroa 2 (Lehen erregionala)
Alde Zaharra 2 Bergara 3 (Neskak)
Bergara 1 Mondragon 1 (Ohorezko m. gazteak)
Eibartarrak 6 Bergara 2 (Lehen m. gazteak)
Bergara 1 Hernani 3 (Ohorezko m. kadeteak)
Bergara 6 Sto. Tomas Lizeoa 1 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Sestao 44 Bergara 25 (Senior mutilak)
Almen 20 Bergara 23 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Bergara 75 Kostkas 71 (Senior mutilak)
Bergara 55 Zarautz 58 (Kadete mutilak)

PILOTA

Bergara Hiria
Olaetxea-Irureta 22 Boto-Etxebarria 4 (Promesak)
Eguskiza-Gutiérrez 22 Aranzeta-Casado 7 (Amateurrak)

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Másterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

HIRU BIDE

Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI


TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA



GAZTELUPEKO HOTSAK

Asier Serrano eibartarrak bakarkako lehenengo lana du *Ez esan inori*.

Emanaldia gaur izango da, 22:30ean, eta bakarkako lehen lana aurkeztuko du

Asier Serranok diskoa aurkeztuko du gaztetxean

MONIKA BELASTEGI

Asier Serranok kantaldia egingo du gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean. Serranok bakarkako lanean egin duen lehenengo diskoa aurkeztuko du, *Ez esan inori* izenburuko diskoa, hain justu ere: hamabi kantuz osatutako lan autobiografikoa.

Talde askorekin kolaboratu izan du Asier Serrano eibartarrak. E.H. Sukarra, Exkixu, Gari eta Tapia ta Leturia Band taldeen dako hitzak idatzi izan ditu, eta Lorelei taldeko buru ere izan da. Baina garai haiek bukatu eta beste aro bati ekin dio Asier Serranok; bakarlari gisa aritzeko garaiari, hain zuzen ere.

Zuzeneko emanaldietako mutila ei da Asier Serrano, musikatik urrun bizi ezin daitekeena. Lorelei taldean ari zen garaian inoiz abestu gabeko hainbat kantu pilatu zitzaizkion, eta orduantxe hasi zen bakarkako lanean pentsatzen, *Ez esan inori* diskoan, hain justu ere. Asier Serranoren hitzetan, egonez baten ondorioz sortu eta antidoto bihurtu den diskoa da gaur gaztetxean aurkeztuko digun hori.

ZUZENKO EMANALDIK NORK MUSIKA TALDEKO KIDEEKIN

Ez esan inori diskoak bidaia bat proposatzen digu: itxaropenetik abiatzen dena, desesperantzan erori eta berriro hasierako egoerara itzultzen den bidaia proposatzen digu *Ez esan inori*-k.

Diskoari talde itxura ematen ahalegindu da Asier Serrano, zuzeneko emanaldietan ere hala xe arituko da-eta. Eibarkoa buru dela, Nork musika taldeko kideek jardungo dute Asier Serranorekin zuzeneko emanaldietan; honako musikari hauek: Ander Izeta gitarra elektrikoarekin, Antxon Sarasua pianoarekin, Alberto Gartzia baxuarekin eta Jon Maza bateriarekin. Kolaborazioen arloari dagokionez, besteak beste, Unai Moraza eta Jexuxmai Lopetegi musikarien laguntza izan du Asier Serranok.

Jexuxmai Lopetegi musikariak berak esana da Asier Serranok kantatzeko era berea egin duela eta, era berean, *Ez esan inori* diskoa atsegin handiz entzuten den lan osoa dela.

Zezenketek badute kartela

Gurutze Muxika aretxabale-tarra izan da V. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketako irabazlea. Gurutzerena izango da, hortaz, Pazkoetako zezenketak iragarriko dituen kartela. Muxikaren olioak *Izuturik* izenburua du eta zezenak eta Errotalde parkea eta inguruak irudikatzen ditu. Lehiaketara 26 lan aurkeztu dituzte, gehienak Debagoieneko artistenak. Sari bana-keta maiatzaren 5ean egingo dute, 13:00etan, Avenidan.

Lanak ikusgai daude kultura etxean, 28ra arte./M.B.

Hiru ordezkari Gipuzkoako Kantu Txapelketako finalera

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, jokatuko da Gipuzkoako Kantu Txapelketako finala. Bergaran izango da, Novedades aretoan, eta herriko hiru ordezkari sailkatu dira finalerako, arlo bakoitzeko (bakarlari, bikote eta talde) bana.

Hiru kanporaketatan parte hartu ondoren, Bergarako ordezkariak Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalera iritsi dira. Herriko bost ordezkari eman zuten izena lehiaketan, eta horietatik, hiruk lortu dute puntu nahikoa finalera heltzeko.

Lehiaketan parte hartzeko hiru modalitate daude: bakarka, bikotea edo taldea har daiteke parte. Finalera iritsi diren herriko hiru ordezkariak modalitate bakoitzeko bana dira. Honako hauek, hain justu ere: bakarkako lanean Argiñe Agirrezabal; bikotekako modalitatean, berriz,

Maitane eta Saioa; eta taldea, Bergarakuak taldea.

FINALA, NOVEDADES ARETOAN

Gipuzkoako Kantu Txapelketako finala Bergaran jokatuko dute bihar, zapatua, 19:00etan, Novedades aretoan.

Modalitate bakoitzeko Gipuzkoa osoko lau taldek hartuko dute parte. Bergarakoak honako kantuekin lehiatuko dira: Argiñe Agirrezabal bakarlaria *Behar nauen artean* kantuarekin; Maitane eta Saioak osatutako bikotea *Zure albotik urrun nago* kantuarekin, eta Bergarakuak taldea, berriz, *Zure begiek* kantuarekin. Modalitate bakoitzean Gipuzkoako txapeldun geratzen direnek Euskal Herriko Txapelketa jokatuko aukera izango dute.

Lehiakideez gain, sariketarik kanpoko beste bi partehartze ere izango dira biharko ekitaldian: Jone eta Xabier bikotea eta Ugutz Ezkurdia bakarlaria, hain zuzen.



ENEKO AZARU

Bergarakuak taldea Bergarako Orfeoiko zortzi kidek osatzen dute.

Eguenean hasiko da VI. Txotxongilo Mostra

MONIKA BELASTEGI

Eguenean, hilaren 2an, hasiko da Nagusiendako VI. Nazioarteko Txotxongilo Mostra. Mundu zabaleko bederatzita taldek hamar ikuskizun eskainiko dituzte mostrak iraungo duen bost egunetan.

Eguenean, bi lan ikusteko aukera egongo da Txotxongilo Mostraren barruan: batetik, Argentinako El Colchon taldeak *La Celestina del Retablo* lana eskainiko du Errotalde parkean, 19:00etan. Fernando de Rojas idazlearen *La Celestina* lan ezagunaren txotxongiloendako egokitza-pen fresko, umoretsu eta inprobisazioz jantzia egingo dute.

Horrez gain, eguenean, beste emanaldi bat ikusteko aukera ere egongo da: Gaztela eta Leongo Alto Teatrok *Silencio* izeneko lana eskainiko du Novedades aretoan, 20:00etan. Alejandro Lucas Garcíak sortu eta zuzendutako

lana da. Oso ikuskizun intimista da, sentimenduez jarduten du eta gure kontrolari ihes egiten dioten gauzez. Nor bere barnean zeharreko bidaia bat da, azken baten, *Silencio* lana.

Egubakoitzean, berriz, hiru lan ikusteko aukera egongo da: 19:00etan, Aragoiko Arbolé taldeak *Teatro Ambulante* lana eskainiko du, eta lanaren izenak dioen moduan, antzerki ibiltaria da; 20:00etan, Valentziako Bambalina taldeak gaur egun oso modan dagoen *Pasionaria* ikuskizuna eskainiko du, Novedades aretoan; eta azkenik, 22:30ean, El Colchon taldeak *La Celestina del Retablo* antzeztuko du, azken hori Pol-Pol tabernan.

TXOTXONGILO ERAKUSKETA

Txotxongilo Mostrarekin bat, Corrado Masacciren *El arte de la marioneta* izeneko erakusketa irekiko dute eguenean kultura etxean. Erakusketa maiatzaren 14ra arte egongo da ikusgai.

E, TXO!

ANTZERKIA

Domekan, apirilaren 28an, antzezlan bat ikusteko aukera izango dugu gaztetxean. Matxin komikoa izango dugu gure artean, eta *Ni, ni neu naiz* antzezlan eskainiko digu. Esan bezala, domekan izango da hori, arratsaldeko zazpitan.

KONTZERTUAK GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Asier Serrano bakarlariak kontzertua eskainiko du gaztetxean. *Ez esan inori* bakarrik lehenengo diskoa aurkeztuko digu gaztetxean. Bihar, zapatua, beste kontzertu bat izango dugu gaztetxean bertan: Sagarroi eta Eten taldeak arituko zaizkigu, 22:30etik aurrera. Maiatzaren 1ean, azkenik, Kevin-K taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean, arratsaldeko zortzietan.

ZINEMA GAZTETXEAN

Maiatzaren 2an, eguenean, 22:15ean, *La guerra de los mundos* filma eskainiko dute gaztetxean. Bestalde, domeketako emanaldiak bertan behera laga dituztela jakinarazi digute gaztetxeo arduradunek.

LANKIDETZAKO PROGRAMA

Joan den asteko alean iragarri genizuen moduan, kooperante izateko deialdia egin du Eusko Jaurlaritzak. Bertan, baina, ez genizuen esan kooperante izateko zer egin behar zenuten. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, apirilaren 15ekoan, hain zuzen ere, programa horren gaineko informazio guztia duzue. www.euskadi.net orrialdean duzue aldizkari hori; hantxe aurkituko duzue eskaera-orria ere.

GUREGAIK/ SEXUALITATE IKASTAROA

Ligatzeko tekniken ikastaroa gazteendako

AINTZANE IRIZAR

Jardun euskara elkarrekin eta Udaleko Ongizate Sailak sexualitatearen eta ligatzeko tekniken gaineko ikastaroa antolatu dute. Bihar, zapatua, egingo dute lehen saioa eta maiatzaren 11n bigarrena.

Eli Moreno sexologoak emango du ikastaroa, eta DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleei zuzenduta dago. Ikastaroa Kuadrillategiko bideratuta antolatu duten arren, 15 eta 16 urte bitarteko gaztetxo guztiei zabaltea erabaki dute antolatzaileek. Udaleko Ongizate Sailaren laguntza izan dute Jardun elkarteko ikastaroa antolatzeko.

Ikastaroaren lehendabiziko saioa bihar, zapatua, izango da. 10:30etik 13:30era izango da saio hori, kultura etxean. Bigarren saioa maiatzaren 11n izango da, ordu eta toki berean.

Kuadrillategiko arduradunen esanetan, Pazkoak laster datoze eta, ondo etorriko zaie gaztetxoei ligatzeko hainbat teknika ikastea. Egia esatearren, gaztetxoei eta ez hain gaztetxoei. Oraingoan, baina, 15 eta 16 urte artekoendako bakarrik antolatu dute ikastaroa.

Ligatzeko teknikez gain, sexualitatearen gaineko ikastaroa ere izango da. Horrela, sexualitatearen gainean dituzten zalantza, kezka eta galderak argitzeko aukera izango dute.



Eli Moreno sexologoak emango du ikastaroa.

LEIRE KORTABARRIA

LOTSABARIK/ Mikel Plazaola

“Lagunei laguntzen eta entzuten dakit”

AINTZANE IRIZAR

Laguntasuna oso garrantzitsua da Mikelendako. Asko berba egitea ei da Mikelen hutsunetako bat, baina seduzitzeko ere horixe erabiltzen du: berba egiteko daukan erraztasuna, alegia.

- Txikitan, zer izan nahi zenuen?
Ez nuen pentsatzen; nahiago dut momentua bizi izatea.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?
Lantegiren baten lanean eta neskalagunarekin bizi izaten.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Gehiago ikasteko.

- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.
Ez daukat funtzionatzen duen taktikarik; noizean behin, gezurtxoren bat esan izan diet, baina beti harrapatu izan naute.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Nire ustez, lagun onak edukitzea da garrantzitsua; eta une honetan ikasketei ere garrantzia ematen diet.
- Zure bertute bat?
Eskubaloian ondo moldatzen naiz, nahiko ona naiz. Bestetik, lagunei laguntzen ahalegintzen naiz, eta entzuten dakit.
- Eta hutsune bat?
Asko berba egiten dut, batzue-

tan gehiegi ere bai.

- Zerk amorratzen zaitu?
Berba egiten ari naizenean kasurik ez egiteak.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
Egia esan, sekula ez dut horretan pentsatu.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
Jendeak lagunekin daukan jarrera garrantzitsua da, nire ustez; eta fisikoki, gorputz osoari, orokorrean.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?
Berba egin, berarekin egon, berarekiko interesa agertu.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?
Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBH (4. maila) • ZALETASUNAK: Eskubaloia • LIBURU BAT: Ez dut batere irakurtzen • FILM BAT: 'Gladiator' MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Portland San Antonio

TIRABIRAKA/ Oihan Vega

EUSKAL KANTU TXAPELKETA - FINALA -
NON: Bergaran (Novelades)
NOIZ: Apirilaren 27an 19:00etan
ANTOLATZAILEAK: MUSIKA DEPARTAMENTUA ESKOLA UOLA

GUK BE BADAUKOGU GURE "OPERACIÓN TRIUNFO" PROPIA...
EUSKAL KANTU
NOIZ: NOIZ! -ren 27

YUUPS LIBING ASELEBREIXON
EUSKAL KANTU TXAPELKETA - FINALA -
NON: Bergaran (Novelades)
NOIZ: Apirilaren 27an 19:00etan
Ego. 02.

ZAHARRENETXETIK



San Joxepe erretiratuen elkarteak 1.600 bazkide inguru dauzka gaur egun.

ARTXIBOA

Etorkizunerako funtzionamendua lantzen dihardute San Joxepen

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak etorkizunerako funtzionamendu modelo lantzen ari da, hemendik bost urtera erretiratuek izango dituzten beharrei erantzuteko gai izateko helburuarekin.

Arrasateko LKS Consultores enpresaren laguntzarekin, San Joxepeko zuzendaritzak etorkizunerako gestio modeloaren diseinua eta ezartzea lantzen dihardu. Jasotako datuen arabera, 2000ko urtarrilean, 65 urtetik gorako 2.737 lagun zeuden Bergaran (biztanleriaren %18,2), eta horietatik, 2.485 lagun 65 urtetik 84 urtera bitartekoak ziren. Egindako proiektioaren arabera, 2005. urtean, gure herrian biztanleriaren %20 izango da 65 urtetik gorakoa, 3.000 lagun inguru, eta 2010. urtean, erretiratuak biztanleria osoaren %21 izango dira.

Bestalde, laugarren adinekoa deritzoneko kolektiboa, 85 urtetik gorakoak, hain zuzen, adineko

pertsonen %11 izango dira 2005. urtean, eta 2010. urtean, %15. Zahartzearen minusbaliotasun arazoak gehituz doazela kontuan harturik, hemendik bost urtera 1.800-2.000 lagun bitartean egongo lirarteke autonomo aktiboaren kolektiboaren barruan, eta horiek izango lukete erretiratuen elkar-

Proiektu aitzindaria


San Joxepetik esku artean darabilen etorkizunerako gestio modeloaren diseinua proiektu aitzindaria da erretiratuen elkartei dagokienez. Barne funtzionamendua oinarriak sendo izan nahi dituzte herriko erretiratuek, jakinik zaharren kolektiboak zeresan handia izango duela etorkizunean ere. Garai berrietara egokitzeta da helburua.

tean jarduerak bultzatzeko ardurara, hain justu ere.

ERRETIRATUEN BEHARREI ERANTZUN

San Joxepeko zuzendaritzakoek 14 laguneko taldea osatu dute gestio modeloaren nondik norakoak zehazteko. Fernando Azkarate eta Jesus Mari Sebal San Joxepeko ordezkariak arabera, "hemendik bost urtera herrian izango diren erretiratuen beharrei erantzuteko prest egon behar gara, eta hori dela eta, hobekuntza plangintza honetan murgilduta gaude. Beharra geneukan horrelako zerbait egiteko, atzean ez geratzeko. Gure elkartearen helburuetako bat gizartearen presente egotea izan da azken urteotan, eta etorkizunean ere horri eutsi nahi diogu".

Besteak beste, San Joxeperen inguruan dauden elkarte eta taldeekin (Diputazioa, Udala, ikastetxeak edo komunikabideak, esaterako) duten harremana izango dute aztergai, eta nahi dute ekainerako esku artean txosten bat izatea, hortik abiatuta etorkizunerako ibilbidea zehazteko.



Informatika ikastaroak erretiratuendako

Informatika ikastaroen azken hiruhilabetekoa abian da San Joxepe elkartearen. Interneteko eta informatikako hasiera ikastaroak emango dituzte ekainaren erdialdera bitartean. Oraingo honetan 15 lagun inguruk eman dute izena, eta eskolak goizez eta arratsaldean izango dira. Gaurtik ekainaren 14ra bitartean Informatika Gela zabalik egongo da egubakoitzetan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Bestalde, maiatzaren 3an Karakatera eta Gorrara mendi irteera antolatu dute. Argibideak 943 76 30 09 zenbakian. /ARGAZKIA: ARTXIBOA

ZAHARRETXOKOTIK

Jose Luis Armendia

YOGA IRAKASLEA


San Joxepe erretiratuen elkartearen Yoga ikastaroa ematen du Jose Luisek duela zazpi urtetik hona. Asteleheneretan eta eguaztenetan izaten dituzte eskolak.

Zertarako da ona yoga egitea? Zer nahi izaten dute erretiratuek yogarekin?

Erlaxazioa lortzeko, eta arnas arazoak dituztenendako, esate baterako, oso aproposa da. Bizkarrezurreko edo beste artikulazio batzuetako arazoak dituztenek ere asko eskertzen dute yoga egitea.

Yoga zenbat denboraz egitea gomendatzen duzu?

Yoga jatea modukoa dela esaten dut behin baino gehiagotan. Hobe da egunero zerbait egitea, egun baten asko egitea baino. Egunero 20 bat minutuz yoga egitea oso ondo dator.



Ibarrean yoga kontuetan aitzindarietako bat zara.

Orain dela 24 urte hasi nintzen eta Bergaran ere urte asmo daramatzat eskolak ematen. Pixkanaka eskolen ardurara beste batzuei laga eta yogaren gaineko liburua idatzi nahi dut, yogarekin gaixotasunei nola aurre egin erakusteko.

Agirrebeña

9478778A



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

telkar
Erlojutegia

Deskontua
%10

Ibargarai 2
943 76 27 11


ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

BONO FOTOA



XV.
mende
eraikitako
San
Prudentzio
ermita zein
urtetan
izendatu
zuten
parrokia:
1881ean,
1901ean
ala
1921ean?

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

BERGARAKO ZUHAITZAK

Hostazuria

Sorbus aria

MAITANE ARIZABALETA


Adaburu leundua duen tamaina ertaineko zuhaitz edo zuhaixka. Azal grisa eta leuna du, eta adarrak, aldiz, bihurriak eta kolore arreskakoak. Hostoak bakunak eta eliptikoak dira, eta ertza bizerratu dute. Apiril eta maiatza bitartean loratzen da eta loreak multzo handietan batzen dira. Fruitua mamitsua, biribildua eta kolore gorrikoa da eta irail eta urria bitartean heltzen da.

Euskal Herrian altitude ertaineko mendietan azaltzen da, batik bat, iparraldean, hegoalderantz goazen neurrian desagertu egiten da-eta.

Oso zuhaitz apaingarria da, bai hosto zuriengatik bai lore eta fruituengatik. Ondorioz, herri eta hirietan apaingarri zein hileria zuhaitz gisa erabiltzen dute.

Erabilera askotarikoa da hostazuria: alde batetik, egurra astuna eta gogorra izan arren, marruskadura jasan behar duten piezetarako aproposa da, baita tailatzeko ere. Bestetik, sutarako ere oso egur ona da eta kalitate handiko ikatza ematen du. Eta azkenik, aipatu beharra dago bere fruitua fitoterapian erabilia izan dutela, espektoratzaile gisa.

“Euskal Herrian altitude ertaineko mendietan azaltzen da, iparraldean, batik bat”



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Gaztetxoendako ligatzeko tekniken gaineko ikastaroa antolatu dute. Zein da irakaslea?

- A/ Mikel Markez.
- B/ Amaia Vázquez.
- C/ Eli Moreno.

2.

Zein da Asier Serranok bakarka egin duen lehen diskoaren izenburua?

- A/ Ametsen gezurra.
- B/ Zure begien disdira.
- C/ Ez esan inori.

3.

Zenbat talde izango dira lehia aurtengo herri arteko pilota txapelketan?

- A/ 32.
- B/ 25.
- C/ 16.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CRISTINA IBARGURENendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Cristina! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Eginu baserria / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Koipesol ekilore olio

Litro bateko botila.

1,19 €


198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62



BERGARA
Ane Sancho
Apirilaren 27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Irati Sanz
Apirilaren 28an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Benito Davila
Maiatzaren 2an 6 urte.
Zorionak! Zure aita ez da
inoiz ahaztuko.



BERGARA
Ainhoa Agiriano
Apirilaren 28an 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Olatz Guridi
Apirilaren 27an urteak.
Zorionak! Familiakoak
eta lehengusuak.



BERGARA
Miren Santa Cruz
Apirilaren 29an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Martin Azpiazu
Maiatzaren 1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Mari Cruz
Apirilaren 26an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Etxeoak.



BERGARA
Jon Macias
Apirilaren 28an 6 urte.
Zorionak! Etxeoak eta,
batez ere, Amaia arreba.



BERGARA
Jon Agirre
Maiatzaren 1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta Unai.



BERGARA
Pedro Rudolph Martin
Apirilaren 27an 5 urte.
Urte askotarako!
Maite eta etxeoak.



BERGARA
Amaia Uriarte
Apirilaren 29an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak eta Marije.



BERGARA
Maite De Pedro
Apirilaren 26an 6 urte.
Zorionak! Gurasoak, Josu
eta osaba Martin.



BERGARA
Garazi Agirrezabal
Apirilaren 26an 6 urte.
Zorionak! Jon, Aitor,
aitatxo eta amatxo.



ELGETA
Arantxa Arrieta
Apirilaren 25ean urteak.
Urte askotarako ama!
Susana, Olaia eta Aitzol.



BERGARA
Asier Mellado
Maiatzaren 2an 8 urte.
Urte askotarako!
Leire eta etxeoak.



BERGARA
Lorea Larrañaga
Maiatzaren 1ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Andoni Kortabarría
Apirilaren 24an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



BERGARA
Eneko Koortabarría
Maiatzaren 2an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.

Adi!

Argazkiak emateko:
Bergara:
Berrigara,
Irizar jauregia,
Barrenkalea-33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
astelehenetan
17:00etatik
19:00etara
Elgeta:
Erosle-Baltxungo

BABESLEA

Raizabal

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20-22
Tel. 943 76 12 19

**Urtebetetze
tarta**
zuk nahi duzun
**argazkiarekin
eta formarekin!**

Eta agur-afarietarako tartak



APIRILAREN 12KO APATXIKO ERANTZUN ZUZENAK:

A	K	A	R	T	A	K	S
P	A	Y	A	A	O	A	O
E	K	A	N	I	K	I	A
L	A	A	K	A	D	A	I
O	A	R	A	R	A	A	F
T	A	A	R	T	T	A	A
I	A	W	A	L	A	G	A
A	S	O	K	I	A	I	K

JOLASA ETA TRESNA:

1 e C 2 a D 3 d A 4 b B 5 f E 6 c E

Zorionak Mikel eta Itsaso!

Haiei egokitu zaie 'Apatxi'-ko 2. aleko lehen saria!

Apatxiko bigarren aleko sariketan
Mikel Arantzabalek eta Itsaso Goenagak
irabazi zuten lehen saria.
Mikelek eta Itsasok *Hitzak irakurtzen* mahai jokoaren
ale bana eskuratu zuten.

Horrez gain, Miren Carnicero, Aintzane Olabarria,
Oihana Alzelai, Elena Eginio eta Xabier Moñux ikasleek
Ume txikiendako kantu eta jolasak
liburuxka bana jasoko dute euren ikastetxetan.

**APATXI-REN HURRENGO ALEA MAIATZAREN 31ko BERRIGARAREKIN BATERA!
Beraz, adi egon!**

www.viajes.eroski.es

Pentekoste Jaiak Salou 2002

Maiatzaren 17tik 21era

Autobus gabe

Los Angeles	75,60 €
San Francisco	86,65 €
Las Vegas	94,65 €
Augustus	99,40 €
Belvedere	103,65 €
Playa Park	103,90 €
Europa Park	104,10 €
Olympus	104,95 €
Michelangelo	108,15 €

Autobusarekin

Los Angeles	119,00 €
San Francisco	130,50 €
Las Vegas	138,50 €
Augustus	143,30 €
Belvedere	147,50 €
Playa Park	147,75 €
Europa Park	148,00 €
Olympus	148,80 €
Michelangelo	152,00 €

Luxuzko bi autobus. Irteerak: 17.00etan eta 20.00etan

- Gidari laguntzailea • Asistentzia eta bidaia aseguru
- Egonaldia **maiatzaren 25era**, larunbata, luzatzeko aukera dago
 - Ume bat doan eta bigarrenak deskontua
 - Hirugarren eta laugarren pertsonendako deskontua



UNIVERSAL STUDIOS
PORT AVENTURA™&©

Eta gainera...

PORT AVENTURA

2 egun egon eta **bakarra** ordaindu



INFORMAZIOA ETA ERRESERBA
Irizar, I

Tel.: 943 76 26 76 eta 943 76 12 67
Idoia eta Karmentxu



► Prezio Onak baino gehiago

El mundo del siglo XXI
del mende
akordioa
Luzeko 1000

ba
euskarari



EROSKI BIDAIAK

EROSKI BIDAIAK

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a / 110. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

GERBASIO LEGORBURU/TXISTULARIA

“Ez jat meritorik emoten nik eginddako lanari, gustora eginddakua izan da-eta”

AINZANE IRIZAR

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak zilarrezko domina emango dio Gerbasiori. Horixe onartu zuten joan den domekan Urduñan egindako batzar nagusian, baina datorren urteko udaberri arte ez dute ekitaldia egingo.

Hasteko eta behin, zorionak. Pozik egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik nago. Horrelako errekonozimentuak gustora hartzen dira. Dana dala, gauza bat argi esan bihar dot: alde batetik, lan asko egindda be, oso gustora eginddako lana izan da. Egin biharrekua zan nik egin dotena, eta parian tokau jat. Horretxegaittik, ez jat meritorik emoten nik eginddako lanari; neretako ez da sakrifiziua izan.

Beste alde batetik, esan bihar dot, domiña hori neuri emonda be, neure inguruan jente asko egon dala, eta dagola, mundu honetan lan egin dabena.

Zela hasi ziñen txistulari?

Gerra ostian hasi nitzan; Antzuolan beti egon izan da dantza talde ona. Santiago Sologaitoa, Pedro Telleria eta Pedro Igarza ibili ziren dantza taldeak. Gerra garaian desegin egin zan taldea. Gerra ostian, Inocencio Jauregik, lehen dantzari izandakuak, eta Bitor Estenagak dantza taldea



AINZANE IRIZAR

martxan jartzia pentsau zebe. Dantza taldiakin batera, txistulari taldea be eratzia pentsau zebe, eta horrelaxe hasi nitzan. Hama-

bost bat urte eukiko nittuan orduan. Zuzendarixa Enrike Jauregi zan, ni bigarren zuzendarixa nitzan, eta Luis Azkarate ata-

“Oso pozik nago; horrelako errekonozimentuak gustora hartzen dira”

“Gerra ostian hasi nitzan txistulari, Inocencio Jauregik eta Bitor Estenagak sortutako taldean”

“Poz haundixak emon dost neri txistulari izatiak; eta, horrekin batera, baita umoria be”

Gero, txistua eta dantza erakusten ere ibili ziñen.

Bai; txistulari bandako zuzendarixa izan nitzan urte askuan, baiña nik esango neuke zuzendarixa baiña gehixago irakasle izan nitzala. Nahi zebe danak etortzen ziran txistua ikastera. Dantzak erakusten be hasi nitzan, eta orain be jarraitzen dot. Seme-alabak txikixak zirala, eskolako umien gurasuok elkartu giñan, eta zapatu goizero aktibidadiak antolatzen giñuzen; nik dantzia erakusten notzen umiei. Ze izan da zure bizitzan txistua?

Buenooo! Poz haundixak emun dost neri txistulari izatiak; eta horrekin batera, umoria. Ez txistulari izatiak bakarrik, musikiak jeneralian. Koruan be ibili nitzan, eta kantuan egitteko afiziñua be beti euki dot. Musikiakin asko disfrutau izan dot nik. **Oin, 71 urte daukazu. Txistulari ofiziuaren ez dago erretiratzeko adiñik?**

Txistu ensaio baten ostian neri domiña emateko eskaeria egin bihar zebela esan zostenian, sorpresa ikaragarrixa hartu neban. Eta esan notzen, oraintxe danari lagatzia be pentsatzen hasi-tta nenguala. Izan be, kalejiretan, gorakuan, gero eta gehixago kostatzen jat putz egittia be. Baiña bueno, oingoz, behintzat, jarraitzeko asmua daukat.

bala. Silbote bat be komeni jakun, eta Fernando Azkarate hasi zan. Horrela, txistulari talde konpletua eratu giñuan.

UDALBILTZA

EHNA tramitatzea eskatu diote Udalarari mozio baten

AINZANE IRIZAR

Antzuolako Bai Euskal Herriari taldeak mozio bat aurkeztu zuen Udalean, egueneko osoko bilkuran udalbatzarrak azter zezan. Hain zuzen ere, mozio horretan Euskal Herriko Naziotasun Agiria tramitatzea onar dezala eskatu diote Antzuolako Udalarari.

Bai Euskal Herriari taldearen esanetan, duela urtebete pasatxo 125.000tik gora sinadura batu zituzten Euskal Herri osoan, Udalbiltzari euskal agiria edo txartela abian jar zezala eskatzeko, eta Antzuolan bertan ere ehunka sinadura batu zituzten. Euren esanetan, “beste herri batzuetan Udalbiltza hasia da horretan lanean”, eta “gure herrian ere euskal

naziotasun agiri hori egin nahiko genuke”, gaineratu dute.

Euskal Herriko Naziotasun Agiri horrekin, “askatasunez eta demokratikoki, Euskal Herriko edo Nazioko hiritar izateko nahia eta borondatea adierazi” nahi dutela azaldu dute Bai Euskal Herriari taldeko kideek.

Horrela, Euskal Herriko Naziotasun Agiria tramitatzea

eskatu diote Udalarari, aurkeztutako mozioaren bitartez.

Atzo, eguena, apirileko osoko bilkuran aztertzea zen udalbatzarra Bai Euskal Herriari taldeak egin duen eskaera.

UDALAREN ZEREGINA

Antzuolako Udalak mozio hori onartzeak zera ekarriko luke: Antzuolako edozein herritarrek

EHNA eskatu ahal izango lukeela, eta horretarako eskaera-orriak udaletxeko bulegoetan eskuragarri izango lituzkeela.

Eskaera-orri horiek Udalbiltzako ordezkariak helaraziko lieke Antzuolako Udalak. Hortaz, bitartekari lanak egingo lituzke Antzuolako Udalak, Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztu duen mozioa onartzekotan.



Antzuolako erretiratuek irteera egin zuten Nafarroara

Joan den apirilaren 11n (egüena), Nafarroara irteera egin zuten Antzuolako erretiratuek. 50 bat lagun joan ziren. Goizean goiz irten ziren herritik, eta Los Arcos aldera abiatu ziren. Han, upeleategi bat bisitatu zuten, eta hamarretakoa egiteko aukera ere izan zuten. Handik Lizarrara joan ziren; hango merkatua ikusi eta pare bat ordu izan zituzten herri hura bisitatzeko. Bazkaria Iraxen egin zuten; egia esan, eguraldiak ez zien batere lagundu, giro kaskarra izan zuten. Baina jate-txe barruan giro ezin hobea izan ei zuten, eta dantzarako aukerarik ere ez zitzairen falta izan./A.I.

KIROLA

Kadeteek liderraren aurka jokatu dute zapatuan Donostian

Kadeteak igoera faserako sailkatu ziren, baina justu samar ari dira. Zapatuan, gainera, taldeko lider Martuteneren aurka jokatu beharko dute. Martutene taldeak 13 partidutik 10 irabazi ditu eta 32 puntu dauzka; Antzuola, berriz, zortzigarren postuan dago, 10 punturekin.

Gaur jakingo dugu Berraondok mailari utsiko dion

Gaur, egubakoitza, jokatu du Aritz Berraondok Eskuz Banakako Txapelketako bigarren partidua, Sondikan. Xabier Imazen aurka jokatu beharko du, eta mailaz jaisteko arriskua dauka. Izan ere, Esainen aurka jokatu zuen lehen partidua, eta 22-4 galdu zuen. Bigarren partidua ere galduko balu, bigarren mailara jaitsiko litzateke. Oraindik ez da urtebete Berraondok bigarren mailako Eskuz Banakako Txapelketa irabazi eta lehen mailarako sarrera txartela irabazi zuela. Pena izango litzateke urteurrena ezin ospatu izana.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilak 27

16:30: Antzuola-Gazteak B (erreg.)

Apirilak 28

12:00: Antzuola-Elbartarrak (gazteak)

PILOTA

Apirilak 27 (Herriko pala txapelk.)

09:00etatik aurrera bost partidu

jokatuko dituzte

16:00etan beste partidu bat

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Aloña Mendi 3 (neskak)

Antzuola 1 Billabona 3 (gazteak)

Antzuola 1 Ekintza 3 (kadeteak)

ATREBENTZIA EZ PADA/ Odola emoteko ohitturarik badaukazu?



MARINA GARCÍA
58 urte




MAITE IGARZA
36 urte



PEDRO ZUBIKARAI
61 urte



DIONI AGUAYO
43 urte



FERNANDO FERNÁNDEZ
34 urte

Ez, ez naiz sekula odol emailia izan, eta horrelakorik planteau be ez dot egin sekula; izan be, osasun arazuak euki izan ditudut.

Ez, ez dot emoten odolik; izan be, tentsiñuakin nahiko gaizki ibiltzen naiz, tentsiño bajua daukat. Osterantzian, emun-go neuke.

Hasieran bai, baiña urtiak dira ez dotela emon. Garai hartan, zortzi bat bider emon neban, baiña gero, ohitturia galdu neban, eta kitto.

Ez, baiña ezin dotelako. Hepatitis pasatu neban eta horretxegaitik ezin dot emon. Etxeko guztiak dira odol emailiak, neu izan ezik.

Ez, sekula ez dot emon; egixa esan, bildur pixkat emoten dost. Dana dala, uste dot egunen baten bildurra kendu eta hasiko naizela emoten.

LABUR

Maiatzaren 6an, astelehena, egingo dute odol ateratzea

Eguaztenean izan ohi dira odol ateratzeak Antzuolan, baina ohi ez bezala, astelehenez egingo dituzte aurtengo udaberriko odol ateratzeak. Maiatzaren 6an izango da hori, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, parrokiako aretoan.

Urtean bi odol ateratze egingo dituzte herrian. 300etik gora odol emaila dago Antzuolan, eta elkartearen esan digutenez, urtean barrena Bergara ere joaten dira horietako asko, han hamabostean behin izaten dira-eta.



MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko apirilaren 26a / 96. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Liburuaren Egunean 600 liburu oparitu zituzten

OXEL EROSTARBE


Martitzenean Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zela eta, liburutegirako erosi dituzten liburu berrien aurkezpena egin zuten plazan. Liburuak aurkezteaz gain, liburutegian zaharrak geratu diren edo errepikatuta dauden liburuak oparitu zituzten.

Denetara, 600 liburu oparitu zituzten. Liburutegian leku falta dagoela eta, zaharrak geratu diren liburuak oparitzea pentsatu zuten Kultura batzordekoek. Era guztietako liburuak zeuden, hala nola: umeendako moduko ipuinak, komikiak, eleberriz luzeak, bibliografiak, eta abar.

Batez ere, umeak hurreratu ziren arratsaldean plazan jarri zuten mahaira. Eta guraso batzuk ere han inguruan ibili ziren, gustuko libururen bat aurkitzeko asmotan.

LIBURU BERRIEKIN, ERAKUSKETA

Arratsaldeak aurrera egin zuen neurrian, oparitzeko ziren liburuak agortuz joan ziren. Mahai gainean, aurten liburutegirako erosi dituzten liburu berriak gera-



Adin askotariko jendea inguratu zen liburutegirako liburu berriak ikustera.

tu ziren. Aurten, 200 bat liburu erosi dituzte. Maria Elena Ezte-naga liburutegiko arduradunak esan zigunez, hauek dira interresgarrienak: Xabier Etxeba-

rriaren *Egun denak ez dira berdinak*, Koldo Zuazoren *Euskaren sendabelarrak*, Alister Macleod-en *El regreso* eta Toti Martínez de Lezearen *La abadesa*.

KIROLA

Kopa txapelketa irabazi du Estanpak

Aurreko zapatuan, Eibarko Celtics taldearen aurka jokatu zuen Eibarko Txapelketako Kopako finala Estampaciones Intxortak. Elgetarrek ez zuten arazo handirik izan partidua irabazteko. Hasiera-hasieratik euren jokoa egin zuten Estanpakoei, eta horrela, finala 88-41 irabazi zuten.

Ligan ere bikain ibili diren arren, azkenean bigarren postuan amaitu dute Estanpakoei. Aurtengo denboraldia garaipenarekin bukatu du Estanpak.

ARETO FUTBOLA ZAPATUAN

Bihar hasiko da Elgetako Areto Futbol Txapelketa. Badirudi, azkenean, iaz baino talde gehiago izango direla. Arratsaldeko hiruretan hasiko dira partidua.

ARANTZETAK ETA CASADOK, GALDU

Bergarako Hiriko final-laurdenetako partidua 22-7 galdu zuten Arantzetak eta Casadok, Eguski-zaren eta Gutiérrezen aurka.

Uberak eta Laskurainek datorren martitzenean jokatuko dute.



Estampaciones Intxortako jokalariek pozik Kopako finala irabazi eta gero.

HERRITARREN HITZA / Jabier Aranzeta • Irakaslia

Muturra bihar da, gero!

Muturra bihar da gero, hau esateko: "autopista duhan izango balitz ziharo ataskatuko litzake; horregatik ezin da duhan jarri". Izan be, arestixan aittatutako hori arrazoioi, beroi nahikua da duan jartzeko.

Pentsau, pagau bako bidietatik zelan ibiliko dan jentia hasierako hori egixa bada. Danak geldirik, bidietan kabitu ezinik, eta pagau ahal daben listuak, pagau eta patxadaz autopistaz.

Bitartian asmauko dittue iñun diran arrazoi danak kobratzen jarraitzeko. Bat ona diruana da. Ez ei dago dirurik

duako autopista barririk egitteko eta horrexegaittik egin bihar ei da pagau biharrekua. Hemen kasuan be gure partian ez dago diruik; Nafarroarako bidian ostera, bat ez, bi autopista egin dira eta bixak duakuak, harek inportantiaguak nunbaitt.

Baiña ez da hemen bukatzen mutur senduena. Beste asunto batzutan be sendua daukate muturra batzuk. Frantziako



"Komunikabidiak larrittu jakuz derrepentian Le Pen datorrela eta"

elesinuetakua da adibide bat. Espainia eta Frantziako eta Europa osoko komunikabide ixa danak larrittu jakuz derrepentian Le Pen datorrela eta. Euskal Herrixan euri peligrusuak egitten jakuezen partiduak legez kanpo bialdu bihar dirala esaten daben horretxek, orain larri Jean Marie-k

Frantziako itxura demokrati-kuari kalte egin dotsala eta. Asko inporta jakue horrei hori;

gaiñera "garantia guztiko beste demokrata hori" seguru lehendakari izango darian.

Dana dala, hemen mutur asuntuan marka danak apurtu dittuenak israeldarrak dira. Honek kontenplaziño gutxi, palestinarrak garbittu egin bihar dirala. Bada garbittu eta akabo; azken fiñian, lehen aittatutako komunikabidiok zeozer esango dabe, larregirik bez, itxurak egitteko beste, baina hortik aurrera ez da ezer larririk pasatuko. Eta guk bittartean, honek, mutur sendo guzti honek aguntatu egin bihar eta horrelakuak esanda kontsolatu.

LABUR

'ZerNola.net' webguneko arduraduna da Eneko Imaz

Elhuyarrek zortzi urtetik gorako neska-mutikoendako ZerNola.net webgunea aurkeztu du oraingo astean.

Eta hain zuzen, Eneko Imaz da zientziaren gaineko gaiak aurki daitezkeen webgune horren arduraduna.

Biologiaren inguruko bitxikeriak, etxean egiteko moduko esperimenduak, hainbat gairen eta terminoren gaineko azalpenak eta zenbait atal interaktibo ere aurki daitezke Elhuyarke webgune horretan, ZerNola.net-en.

Bonbonia gaiñian hartuta postura danak irabazi zittuan Etor Sarasuak domekan

O.E.

Asentziora, 45 miñutuak bete aurretik helduko zala jende askok pentsau arren, inor gutxi uste zeban 38 miñutu eta 37 segunduak bete orduko bertan izango zala.

Izan be, 26 kiloko bonbonia bizkar gaiñian hartuta hori denborioi egittia, ez da lan makala. Abeletxen txabola parian hasi eta errimo gogorrian igo zittuan Etorrek Intxortako lehenengo aldapak. Bidian kuadrillakuen laguntza izan zeban Etorrek, eta ibilbideko puntu batzuetan erreferentziak emon zotzen.

Intxorta puntara 22 miñutu eta 15 segunduan igo zeban butano-bonbonia Etorrek. Puntan hori denborioi egindda, inork ez zeban jartzen zalantzan ordurako posturia irabaziko zebanik. Asentziora ze denborakin helduko zan jakitzia geratzen zan.

Hogeita hamar lagun inguru etorri ziran Intxortatik Etorren atzian. Askok nahikua lan euki zeben Etorren erritmua jarraitziakin, leku batzuetan korriketan be egin zeban-eta.

Gure Bordan batutakuen txalo zaparrada artian egin zittuan azken metruak Etorrek. Kostauko da egindako markia hobetuko dabenik agertzia. Goibekoko kinielia Fermin Iribarrek irabazi zaban, 38:05eko denboriakin.


Argazkiak: Enaut Arantzeta



Aldapa goran nahikua sufriduta ur pixkat edateko astixa be izan zeban Etorrek.



Kuadrillakuek Etorri laguntzen ibilli ziran ibilbide osuan.



Beharunkuan nahikua lan izan zeben batzuek Etorren erritmua jarraitzeko orduan.



Herri giro ezin hobia egon zan domekan. Abeletxen txabolan, Intxortan eta Asentzion jende ugari batu zan Etorri animatzeko.



'Sorginen Laratza'-kuak eta GOITBkuak egon ziran domekako posturia jarraitzen.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



Elgeta-Piel

Neguko denboraldi berria

Astehenetik barikura:
17:00-20:00
Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA
943 76 81 12

BOLATOKI
taberna·jaketxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Eskolako
lagunak 1954ko
Pazkoetan

Alboko argazkia 1954ko Pazkoetan ateratakoa da, Zubiarte etxearen ondoan. Argazkian agertzen diren neskek elkarrekin ibili ziren Frontoiko eskolan, Kontxita Maiztegi andereñoarekin. Maritxu Markiegi emandako informazioaren arabera, Pazkoetan ekitaldi ugari izaten ziren sasoi hartan, eta jende mordo ibiltzen zen sokamuturra ikusten, barraketan edo dantzaldietan. Oinetako berriak eta jantzi berriak estreinatze egun aproposak izaten ziren. Hauexek agertzen dira argazkian, dotore-dotore: Arantxa Alberdi, Sol Telleriarte, Mari Kruz Azkarate eta Maritxu Markiegi.

Esan bezala, ahal duten bakoitzean elkartzen dira argazkikoak, eta joan den abuztuan, gaztetako kontuak gogoratzeko argazkiko toki bereberan antzeko argazkia atera zuten, nahiz eta Zubiarte etxeko sarrera dezente aldatu den 1947tik hona.

Argazkia: Maritxu Markiegi




ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

IAT lantegia
jarri zuten
Santalaitzen

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko lantegia zabaldu zuten Santalaitzen 1995eko otsailean. Zazpi urte egin ditu dagoeneko. Bergarakoaz gain, beste bi IAT lantegi daude Gipuzkoan: Irunen eta Unietan, hain zuzen. Bergarako lantegian eman dizkiguten datuen arabera, urtero 50.000 ibilgailu inguru joaten dira Bergarako lantegi horretara, azterketa tekniko egiteko.



≈ 1993

IAT lantegia egiteko obrekin hasi aurretik Santalaitzek zeukan itxura. Eskuman, Soraluze kooperatibako lantegia.



2002


Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko lantegia, gaur egun. Urtero 50.000 ibilgailu inguruk egiten dute lantegi horretan azterketa.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Latexeko burukoak

ONDO LO EGIN!

ESKAINZA BEREZIA
Koltxoia erosteagatik
koltxoia estaltzekoa opari



Oinarri tapizatua



Latexeko koltxoiak



Era guztietako koltxoiak



'Aluminium' ohe artikulatuak



Habi-ohea

ederTU

Zatoz Masterreka 9ko
erakustokira

Barrenkalea 23. Tel. 943 76 29 65



Kanape eraingarria

Beren xelebrequeriak mundura zabaldu zituzten.


Ibarrekoak Xeleberrin aurkituko dituzu



XELEBERRI

- Martitzenetan, 20:30ean
- Errepikapena eguaztenetan,
14:30ean
- Aurkezlea: Iratxe Eguen

Goitb
Goiena Telebista





2002-2003 ikasturtea AURRE MATRIKULAZIOA

IPINTZA

BATXILERGOAK (DBHO)

Boni Laskurain 17-19. Tel. 943 76 31 42 / 20 82
Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

**Aurre matrikulazio epea
maiatzaren 2tik 10era**

**GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
TEKNOLOGIKOA**

**Bide eta ate guztiak zabaltzen
dituzten ikasketak:
unibertsitatea eta
goi mailako ziklo formatiboak**

MIGUEL ALTUNA

HEZIKETA ZIKLOAK (LH)

Ibargarai 1. Tel. 943 76 24 91 / 38 40
Posta elektronikoa: imaltuna@sarenet.es / www.imaltuna.com
Ordutegia: 09:00etatik 14:00era

**Aurre matrikulazio epea
ekainaren 3tik 12ra**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administrarritza Kudeaketa*

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Administrazio eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta Kautxugintza
Idazkaritza*



*Zertifikazioaren eremutik kanpo



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k